Legez emandako eskurantzez baliaturik proposatu da hurrengo dekretua onestea.

En virtud de las atribuciones conferidas, se propone la aprobación del siguiente Decreto.

| **Dekretua /** Decreto**:** | **2050 / 2015** | **Erref. /** Ref.**:** | **L.B./m.a.** |
|---|---|---|---|
| **Gaia /** Asunto**:** | **2015-1 kontratazio ildoak / Directrices contratación 2015-1** | | |
| **Arloa /** Área**:** | ***KONTRATAZIO /*** **CONTRATACION** | | |
| **Interesduna /** Interesado**:** | | | |

Cod. Validacion: GET/DEK/2015/2050 y93opS2K1r

Kontratazio Zinegotzi Arduradunak proposatuta, honako hau luzatzen da:

A propuesta del Sr. Concejal Responsable de Contratación, se eleva la siguiente:

DEKRETU PROPOSAMENA

PROPUESTA DE DECRETO

**AURREKARIAK**

ANTECEDENTES

I. 738/2013 eta 1845/2013 Dekretuen bitartez jarduteko zenbait irizpide eta jarraibide ezarri ziren Alkatearen eskumeneko kontratu-prozedurei dagokienez.

I. Por medio de los Decretos 738/2013 y 1845/2013 se establecieron una serie de criterios y pautas de actuación en lo que a procedimientos contractuales de competencia de Alcaldía se refiere.

II. Aipatu diren erabakien ostean, kudeaketa publikoaren gardentasuna areagotzeko arau batzuk eman dira (adibidez, gardentasunari, informazio publikoaren atzipenari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea; edo kontratazio publikoari buruzko 2014ko otsailaren 26ko Kontseiluaren eta Europako Parlamentuaren 2014/24/UE Zuzentaraua, 2004/18/CE Zuzentaraua indargabetzen duena).

II. Con posterioridad a las citadas resoluciones se han dictado diversas normas que inciden en el aumento de la transparencia en la gestión pública (así, la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno o la Directiva 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero de 2014, sobre contratación pública y por la que se deroga la Directiva 2004/18/CE).

III.- Dena dela, balioetsi da lehen adierazitako Dekretuen ezarpenarekin aurrerapausoa eman dela, eta antzeman da kontratazio-prozeduretan gardentasuna, publizitatea eta konkurrentzia are gehiago sustatzea nahitaezkoa dela.

III.- Si bien se considera que se ha realizado un avance con la implantación de los Decretos antes señalados también se observa que es necesario impulsar en mayor medida la concurrencia, publicidad y transparencia en los procedimientos de contratación.

IV.- Ohikoa den legez, Tokiko Gobernu Batzordearen Alkatearen- lehendakariaren Kontratazio Mahaiko kideei iritzia eman dezatela eskatu zaie Dekretu honetan aipatzen diren kontuei buruz, eta gai batzuk eztabaidatu ostean hartutako erabakiekin bat egin dute.

IV.- Como ya viene siendo habitual, se ha consultado la opinión de los miembros de la Mesa de Contratación de Alcaldía-Presidencia (de la Junta de Gobierno Local), sobre las cuestiones que en este Decreto se señalan, debatiéndose y acomodándose algunos extremos a las conclusiones alcanzadas.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- Araudi aplikagarria ondokoa da:

- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuz onartutakoa.

- Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorra (APKAO), 1098/2001 Errege-Dekretuak onartutakoa, urriaren 12koa. Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, SPKLTBeren aurka agertzen ez denean.

- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen zati batez garatzen zuena, SPKLTBeren aurka agertzen ez denean.
- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, 781/1986 ELDk, apirilaren 18koa, onartutako Testu Bategina (TAOL) eta garatzeko xedapenak.
- Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

II.- Zehatz-mehatz esateko, SPKLTBren agindu hauek aipatzea komeni da:

1. artikulua, lizitazioetarako, publizitaterako eta prozeduren gardentasunerako askatasun-printzipioak eta hautagaien artean berdintasuneko tratua eta diskriminaziorik eza bermatzeari buruzkoa; eta, aurrekontu-egonkortasuna eta gastuaren kontrola lortzeko helburuarekin bat, obrak burutzeko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko funtsak eraginkortasunez erabiltzen direla ziurtatzeari buruzkoa, eskakizun hauek betez: asebete beharreko beharrak aldez aurretik definitzea, lehia askea zaintzea eta eskaintza ekonomikorik onena hautatzea.

- 109.4. artikulua, prozeduraren hautaketa behar

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- La legislación aplicable es la que determina la normativa siguiente:

- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre

- Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas (RGCAP), aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se oponga al TRLCSP.

- El Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, por el que se desarrolló parcialmente la Ley de Contratos del Sector Público, en lo que no se oponga al TRLCSP

- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril (LBRL) y disposiciones de desarrollo.

- Ley 30/92 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

II.- Resulta conveniente mencionar, en concreto, los siguientes preceptos del TRLCSP:

- Art. 1 sobre garantía de los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos, y no discriminación e igualdad de trato entre los candidatos, y de asegurar, en conexión con el objetivo de estabilidad presupuestaria y control del gasto, una eficiente utilización de los fondos destinados a la realización de obras, la adquisición de bienes y la contrataicón de servicios mediante la exigencia de la definición previa de las necesidades a satisfacer, la salvaguarda de la libre competencia y la selección de la oferta económicamente más ventajosa.

bezala justifikatzeari buruzkoa.

- 138.2. artikulua, honela dionenean: "Adjudikazioa orokorrean prozedura ireki edo prozedura mugatu bidez egingo da".

- 139. artikulua, berdintasun-eta gardentasun-printzipioei buruzkoa.

III.- Alkatearena da Dekretua emateko eskumena, Toki-jardunbideko Oinarriak arautzen dituen Legearen a), d) eta s) 21.1 artikuluak eta Antolamendurako eta Funtzionamendurako 41. artikulua betez.

**ERABAKI DUT**

**LEHENENGOA.- PROZEDURAREN HAUTAKETA**

Alkatetza honen eskumenekoak diren lizitazio-prozeduretan konkurrentzia eta publizitate handiagoa sustatzeko helburuarekin, arau hauek ezarri dituzte PROZEDURAREN hautaketari dagokionez.

**1.1. KONTRATAZIO PROZEDURA HAUTATZEAN AINTZAT HARTU BEHARREKO ELEMENTUAK.**

Arlo/sail eskatzaileek beren eskaera-orrian lizitaziorako prozedura PROPOSATUKO DUTE.

Gastu-programaren arlo/sail arduraduna eta kontratatuko diren obren, zerbitzuen edo horniduren arlo/sail hartzailea adostasun batera iritsi ez badira, azken horrek egingo du lizitazio-prozedurarako proposamena.

Edonola ere, Kontratazio Zerbitzuak arlo/sail eskatzailearekin prozedura jakin bat proposatzeko aintzat hartutako arrazoiak kontrastatuko ditu, eta, gero, PROZEDURA HORI ALDATU ahal izango da, ARRAZOINAMENDU EGOKIA EGINEZ.

- Art.109.4, sobre justificación adecuada de la elección del procedimiento.

- Art.138.2, en el que se indica que "la adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido".

- Art.139 sobre principios de igualdad y transparencia.

III.- El Alcalde es el competente para dictar este Decreto, en virtud de los artículos 21.1 a), d) y s) de la LBRL y 41 del ROF.

**RESUELVO**

**PRIMERO.- ELECCIÓN DE PROCEDIMIENTO**

A fin de fomentar una mayor publicidad y concurrencia en los procedimientos de licitación competencia de esta Alcaldía se establecen las siguientes normas respecto a la ELECCIÓN DE PROCEDIMIENTO.

**1.1. ELEMENTOS A CONSIDERAR A LA HORA DE ELEGIR EL PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN.**

Las Áreas/Departamentos solicitantes PROPONDRÁN en su hoja de solicitud el procedimiento de licitación.

En caso de que el Área/Departamento responsable del programa de gasto y Área/Departamento destinatario de las obras, servicios o suministros a contratar no coincidan, la propuesta de procedimiento de licitación será realizada por éste último.

No obstante desde el Servicio de Contratación, previo contraste con el Área/Departamento solicitante de los motivos tenidos en cuenta para proponer un determinado procedimiento, podrá VARIARSE DICHO PROCEDIMIENTO RAZONADAMENTE.

| | |
|---|---|
| Lizitazio batean jarraitu beharreko kontratazio-prozedura zehazterakoan alderdi hauek hartu behar dira kontuan: | Como aspectos a tener en cuenta a la hora de determinar el procedimiento de contratación a seguir en una licitación se tendrán los siguientes: |
| - Aurrera eraman nahi den lizitazioaren zenbatekoa.<br>- Eskaintzen artean lehia eraginkorra sustatzea.<br>- Kontratatu beharreko beharren premia.<br>- Giza baliabideak, materialak, teknologikoak eta finantzarioak arrazoiz erabiltzea kontratu-prozeduran. | - Cuantía de la licitación pretendida.<br>- Fomento de una efectiva competencia entre las ofertas.<br>- Perentoriedad de las necesidades a contratar.<br>- Uso racional de los recursos humanos, materiales, tecnológicos y financieros en el procedimiento contractual. |
| Bestalde, eraginkortasuneko printzipioak aplikatuz kontratazio baten zenbatekoak SPKLTBren 138.3. artikuluan tokirik badu, hau da, kontratu txikian sartzen bada, lizitazio horretarako ezingo da publizitate ireki edo mugatu bidezko prozedura negoziatua izapidetzeko proposamenik egin. | Por otro lado, y en aplicación de los principios de eficacia y eficiencia, si por cuantía una contratación tiene encuadre en lo dispuesto en el art. 138.3 TRLCSP, es decir, contrato menor, no podrá proponerse para dicha licitación la tramitación de procedimiento negociado con publicidad, abierto o restringido. |
| **1.2. PROZEDURA IREKIA ETA MUGATUA** | **1.2. PROCEDIMIENTO ABIERTO Y RESTRINGIDO.** |
| Aurrez adierazitakoari kalterik egin gabe, orokorrean prozedura irekira edo mugatura joko da. | Sin perjuicio de lo indicado anteriormente, con carácter general se acudirá al procedimiento abierto o procedimiento restringido. |
| **1.3. AKORDIO MARKOA.** | **1.3. ACUERDO MARCO.** |
| SPKLTBren 9.3.a) artikuluan jasotakoa betez, han aipatzen diren hornidura-kontratuak Akordio Marko bidez adjudikatu beharko dira. | De conformidad con lo señalado en el art. 9.3.a) TRLCSP los contratos de suministro que allí se mencionan deberán adjudicarse por Acuerdo Marco. |
| Aurrekoari kalterik egin gabe, gainontzeko kontratu-motetarako ezarrita geratu da sailak beste zerbait dioen txosten egiaztagiria egiten ez duen bitartean, adjudikaziorako Akordio Markoaren figura erabiltzen denean enpresari bat baino gehiagoren artean egingo dela. | Sin perjuicio de lo anterior, y para el resto de tipos de contrato se establece que salvo informe justificativo del departamento indicando otra cosa, cuando para la adjudicación se utilice la figura de Acuerdo Marco se realizará con varios empresarios |
| **1.4. PROZEDURA NEGOZIATUA.** | **1.4. PROCEDIMIENTO NEGOCIADO.** |
| Salbuespenez, arlo/sail proposamengileari eskatuko zaio legez ezarritako ustezkoa egiazta dezala prozedura negoziatua aplikatzeko oinarritzat hartu dituen 170. artikulutik 175. artikulura adierazitakoen barruan. | Tendrá carácter excepcional y se requerirá que el Área/Departamento proponente justifique el supuesto legalmente establecido dentro de los señalados en los artículos 170 a 175 en el que se basa para la aplicación del procedimiento |

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen kasuan, gainera, jarraibide hauek bete behar dira:

- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izapidetzeko SPKLTBren 177.2. artikuluan jasotako kopuruak alde batera utzita, eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren izapidetzea arrazoitzen duen sailaren txostenik ez badago edo behintzat kontratuaren xedea betetzeko ahalmena daukaten 5 enpresei gonbit egiten ez bazaie, publizitate bidezko prozedura negoziatura joko da, edo, hala badagokio, prozedura irekira edo mugatura, baldin eta haien balio estimatuak kopuru hauek gainditzen baditu:

    - o Obrak: 170.000 €.
    - o Gainerakoa: 50.000 €.

- Kontratu-xede berdinari dagokionez prozedura negoziatu bidez izapidetu diren aurreko lizitazioetan lizitatzaile bakarra lehiatu/mantendu bada, hurrengo lizitazioa publizitate bidezko prozedura negoziatu bidez edo prozedura ireki bidez egin beharko da, baldin eta kontratuaren xedea betetzeko gaitasuna daukaten 5 enpresei behintzat gonbit egiten ez bazaie.

- SPKLTBren 170.d) artikuluan jasotako prozedura negoziatuetan, hau da, enpresari jakin baten kargu utz daitezkeen prozeduretan (haien zehaztasun teknikoa edo artistikoa edo datuen babesa direla eta), aldez aurretik gardentasunezko iragarki bat argitaratuko da, borondatez, SPKTBren 37.2b) artikuluan adierazitako baldintzetan.

**1.5. KONTRATU TXIKIAK**
Aurrez adierazitakoari kalterik egin gabe, 738/2013 eta 1845/2013 Dekretuetan jasotakoari men egingo zaio.

**BIGARRENA.- GARDENTASUNA ETA LEHIA AREAGOTZEA LIZITAZIO PROZEDURETAN.**

negociado.

En el caso de procedimientos negociados sin publicidad se establecen además las siguientes indicaciones:

- No obstante las cantidades señaladas en el artículo 177.2 TRLCSP para la tramitación del procedimiento negociado sin publicidad, y a salvo de informe del departamento que justifique la tramitación por procedimiento negociado sin publicidad o se invite por lo menos a 5 empresas capacitadas para la realización del objeto del contrato, se acudirá al procedimiento negociado con publicidad o en su caso al procedimiento abierto o restringido en aquellos cuyo valor estimado supere las siguientes cantidades:

    - o Obras: 170.000 €.
    - o Resto: 50.000 €.

- Si en relación con el mismo objeto contractual en anteriores licitaciones tramitadas por procedimiento negociado sólo ha concurrido/sobrevivido un único licitador la siguiente licitación que se inicie deberá realizarse por negociado con publicidad o procedimiento abierto salvo que se cursen invitaciones, al menos a 5 empresas capacitadas para la realización del objeto del contrato.
- En los procedimientos negociados señalados en el art. 170.d) TRLCSP, es decir, que solo puedan encomendarse a un empresario determinado por especificidad técnica o artística o protección de datos, se publicará un anuncio de transparencia previa voluntaria en los términos señalalados en el art. 37.2b) TRLCSP.

**1.5. CONTRATOS MENORES**
Sin perjuicio de lo indicado anteriormente, se atenderá a lo señalado en los Decretos 738/2013 y 1845/2013.

**SEGUNDO.- AUMENTO DE LA TRANSPARENCIA Y COMPETENCIA EN LOS PROCEDIMIENTOS DE LICITACIÓN.**

| | |
|---|---|
| Alkatearen eskumeneko lizitazio-prozeduretan gardentasuna eta lehia areagotzeko helburuarekin, neurri hauek ezarri dituzte: | Con el objetivo aumentar la transparencia y la competencia en los procedimientos de licitación de competencia de esta Alcaldía se disponen las siguientes medidas: |
| **2.1. Kontratatzailearen profila.** | **2.1. Perfil del contratante.** |
| 2.1.1. Hurrengo lizitazioei buruzko informazioa. | 2.1.1. Información sobre próximas licitaciones. |
| Kontratatzailearen profilean azpiatal berria sortuko da INFORMAZIOAREN atalean, "HURRENGO LIZITAZIOAK" izenpean. | Se creará en el perfil de contratante un nuevo subapartado dentro de INFORMACIÓN que tendrá la denominación "PRÓXIMAS LICITACIONES". |
| Kontratazioen lizitazio-espedientea jaso eta gero, "Hurrengo lizitazioak" azpiatalean azaleko informazioa jasota geratuko da (egin nahi den kontratuaren xedea eta prozedura-mota). | Una vez recibido en Contratación un expediente de licitación se incluirán en el subapartado "Próximas Licitaciones" una somera información (objeto contractual pretendido y tipo de procedimiento). |
| 2.1.2. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuei buruzko informazioa. | 2.1.2. Información sobre procedimientos negociados sin publicidad. |
| UDALEAN LIZITAZIO EPEAN DAUDEN KONTRATUEN atalean abiarazitako publizitaterik gabeko prozedura negoziatuei buruzko informazioa jasoko da. Profilean sartze horrek ez du lizitazio-iragarkiaren izaerarik edukiko, eta eskaintzak aurkezteko epean hala eskatzen duten enpresen gonbidapena ahalbidetuko du. | En el apartado CONTRATOS EN PERIODO DE LICITACIÓN/AYUNTAMIENTO se incluirá información sobre los procedimientos negociados sin publicidad que se inicien. Dicha inclusión en el perfil no tendrá carácter de anuncio de licitación y posibilitará la invitación de aquellas empresas que lo soliciten dentro del plazo de presentación de ofertas. |
| **2.2. Automatikoki ebalua ezin daitezkeen irizpideen txostena.** | **2.2. Informes de valoración de criterios no automáticos.** |
| Automatikoki ebalua ezin daitezkeen irizpideen txostenek, Udaleko arloek/sailek egindakoek, puntuazioen laburpen-taula bat eduki beharko dute. Taula hori automatikoki ebalua daitezkeen irizpideen (edo, hala badagokio, kontraeskaintzen, prozedura negoziatuen kasuan) gutun-azala zabaltzeko ekitaldira bertaratzen diren lizitatzaile guztiei banatuko zaie. | Los informes de valoración de criterios no automáticos que se elaboren por las Áreas/Departamentos Municipales deberán contener una tabla resumen de puntuaciones. Dicha tabla será entregada a todos los licitadores que acudan al acto de apertura del sobre de criterios automáticos (o en su caso, contraofertas en el caso de procedimientos negociados). |
| Halaber, adjudikazio-akordioaren berri ematean, automatikoki ebalua ezin daitezkeen irizpideen txostenaren edo txostenen kopia osoa erantsiko da. | Asimismo, a la notificación del acuerdo de adjudicación se acompañará una copia completa del informe u informes de valoración de criterios no automáticos. |

**2.3. Prozedura negoziatuak: negoziazioari lotutako alderdiak – proposamen ekonomikoa.**

Publizitate bidezko edo publizitaterik gabe prozedura negoziatuetan negoziazioari lotutako alderdi gisa prezioa agertzen denean, arlo/sail eskatzaileak kontrakorik adierazten ez badu, negoziazio-txanda bakarra egingo da.

Edonola ere, hasierako eskaintza ekonomikoan lizitazio-tasaren % 3tik gorako beherapenik lortzen ez den kasuetan, bi negoziazio-txanda egingo dira.

**HIRUGARRENA.- ESKABIDE-ORRIAK.**

Erabaki honi erantsi zaizkion eskabide-orrien eredu berriak onartuko dira, eta 3.2.1. eredu normalizatua ordezkatuko dute.

Ebazpen hau onartzen den unetik aurrera, kontratu-espediente bat irekitzeko eskatzen duten sail, unitate edo zerbitzuek eskabide-orriaren eredua bete eta behar bezala sinatuta bidali beharko dute Kontratazio Zerbitzura, bakoitzak dagokiona aukeratu beharko du, hau da, prozedura motaren arabera aukeratuko dute edo, kasuan kasu, indarrean dagoen kontratuaren luzapenari edo aldaketari dagokiona.

Eredu horiek udal Intranetean eskuragarri jarriko dira, sailek bertatik har ditzaten.

**2.3. Procedimientos negociados: aspectos sujeto a negociación – proposición económica.**

En los procedimientos negociados (con o sin publicidad) en los que figure como aspecto sujeto a negociación el precio, salvo indicación contraria del área/departamento solicitante, se realizará una única ronda de negociación.

No obstante lo anterior, y para aquellos casos en los que en la oferta económica inicial no alcancen rebajas superiores al 3% del tipo de licitación, se realizarán dos rondas de negociación.

**TERCERO.- HOJAS DE SOLICITUDES.**

Aprobar los nuevos modelos de Hoja de Solicitud adjuntos al presente acuerdo y que sustituirán al modelo normalizado 3.2.1.

A partir de la aprobación de la presente resolución los Departamentos, Unidades o Servicios que insten la incoación de un expediente contractual, han de cumplimentar y remitir debidamente firmado al Servicio de Contratación, el modelo_Hoja de Solicitud que corresponda en función del tipo de procedimiento o, en su caso prórroga o modificación de contrato vigente.

Dicho modelos serán puestos a disposición de los diferentes Departamentos en la página de Intranet municipal.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.net/ administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal ( http://www.getxo.net/ Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.